

V. ERANSKINA.

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA

EUSKARA ETA LITERATURA,
GAZTELANIA ETA LITERATURA, ETA ATZERRIKO
HIZKUNTZA

SARRERA

Derrigorrezko Hezkuntzaren helburua pertsonaren garapen osoa eta harmonikoa lortzea da, jakintza-, afektibitate- eta gizarte-gaietan. Garapen horren oinarritzko osagaiak hizkuntza- eta literatura-hezkuntza dira; hain zuzen, bi osagai horiekin, gizartean nahiz norbanakoan lantzen diren jardueretako hainbat esparrutan hizkuntza erabiltzeko ahalmena adierazi nahi da, bai eta literatura-testu garrantzitsuak modu egokian irakurtzeko beharrezko diren trebetasunak eta trebeziak ere.

Hizkuntza funtsezko alderdia da giza garapenerako, eta, gainera, funtzio bikoitza du: norbanakoaren garapena eta gizarte-garapena. Norbanakoaren garapena: pertsona bakoitzari pentsatzeko, ezagutza aldatzeko, bere jarduera bereziak arautzeko eta adierazteko ahalmena ematen diolako. Gizarte-garapena: hizkuntzak gizartearen bidez transmititzeaz eta gordetzeaz gainera, giza taldeak hizkuntza ardatz eta euskarri duten jarduera baten inguruan eraikitzen eta garatzen direlako. Hizkuntza da, hain zuzen, kultura sortzeko, horren oinarriak ezartzeko eta transmititzeko tresna.

Lotura zuzena du pertsonen bizitza afektiboarekin eta kognitiboarekin, eta, gainera, sentimenduen erregulatzaile eta ikaskuntza ororen (bizitzakoak nahiz akademikoak) bitarteko nagusi da; izan ere, esperientziak, hitzen bidez adierazi ondoren, aldatu eta beste maila bat hartzen du. Hori dela eta, hizkuntza bat ondo jakiteak tresna egokiak izatea adierazten du norbanakoaren barnera hobeto hurbiltzeko, gainerakoekin harremanetan jartzeko, elkarbizitza arautzeko, besteekin lankidetzan aritzeko eta baita modu kritikoan eta autonomoan ikasketo ere.

Oinarritzko Hezkuntzan irakasgai horiek irakastearen helburua, beraz, bi hizkuntza ofizialetan eta, gutxienez, atzerriko hizkuntza batean komunikazio-gaitasuna lortzea da; hau da, hainbat gizarte-eremutan behar bezala jarduteko behar diren ezagutzak eta prozedurak lortzea. Jakintza horiek komunikazio-harremanen printzipio, estrategia eta gizarte-arauei egiten diete erreferentzia, bai eta testuek duten ohiko itxurari, multzo kohesio-natu batean testu zatiak egituratzen dituzten prozedurei, esanahia duten eta gramatikalki onargarriak diren esaldiak osatzeko aukera ematen duten arau lexiko eta sintaktikoei, edota baita ortografia- eta prosodia-arauei ere.

Literatura-hezkuntza aurrez aipatutako ikaskuntza multzo horren parte da; baina, literatura-komunikazioaren ezaugarri bereziak, hizkuntza literaturan erabiltzeko arau bereziak, eta literatura-testuak kultura-testuingu-

ANEXO V.

EDUCACIÓN SECUNDARIA OBLIGATORIA

LENGUA VASCA Y LITERATURA, LENGUA
CASTELLANA Y LITERATURA, LENGUA
EXTRANJERA

INTRODUCCIÓN

La finalidad de la Educación Obligatoria es el desarrollo integral y armónico de la persona en los aspectos intelectuales, afectivos y sociales. Un componente fundamental de este desarrollo lo constituyen la educación lingüística y literaria, entendidas como la capacidad para usar la lengua en las diversas esferas de la actividad social e individual, y como el conjunto de habilidades y destrezas necesarias para leer de forma competente textos literarios significativos.

La lengua es un factor clave en el desarrollo humano en su doble función, individual y social. Individual, en tanto instrumento que permite a cada individuo pensar, transformar su conocimiento, regular su propia actividad y expresarse. Social, porque además de ser socialmente transmitida y mantenida, los grupos humanos se construyen y desarrollan en una actividad que tiene en la lengua su eje y soporte. Es el instrumento con el que la cultura se crea, se cimienta y se transmite.

Estrechamente implicada en la vida afectiva y cognitiva de las personas, la lengua constituye el regulador de los sentimientos y el medio por excelencia de todo aprendizaje, tanto vital como académico, porque la experiencia, al ser formulada en palabras se transforma y adquiere un nuevo rango. Por eso, dominar el lenguaje significa poseer los instrumentos adecuados para acercarse mejor al interior de uno mismo, para situarse en relación con los demás, para regular la convivencia, para cooperar con los otros y para aprender de forma crítica y autónoma.

El objetivo de la enseñanza de estas materias en la Educación Básica es el desarrollo de la competencia comunicativa en las dos lenguas oficiales y al menos una lengua extranjera, es decir, el desarrollo de los conocimientos y de los procedimientos de uso necesarios para interactuar satisfactoriamente en diferentes ámbitos sociales. Estos saberes se refieren a los principios, estrategias y normas sociales que presiden los intercambios comunicativos, a las formas convencionales que presentan los textos, a los procedimientos que articulan las partes del texto en un conjunto cohesionado, a las reglas léxico-sintácticas que permiten la construcción de enunciados con sentido y gramaticalmente aceptables o a las normas ortográficas y prosódicas.

La educación literaria participa del conjunto de aprendizajes anteriores, pero a causa de las características especiales de la comunicación literaria, de las convenciones propias del uso literario de la lengua y de las

ruarekin dituen harremanak direla-eta, ikaskuntza-prozesu bereziak behar dira literatura-obra ongi ulertzeko eta aintzat hartzeko.

Hizkuntzaren giza ahalmena hizkuntza batzuetara mugatzen da. Euskal Autonomia Erkidegoan bi hizkuntza ofizial daude: euskara eta gaztelania; beraz, eskolarakundearen helburu nagusia ikasleek bi hizkuntzak behar bezala ikas ditzaten bermatzea da. Horretarako, euskararen erabileraren eta ikaskuntzaren aldeko jarrera hartu behar da, gizartean duen agerpen txikia orekatzeko eta hizkuntza horren normalizazioa bultzatzeko. Beraz, eskolatze-garaia amaitzean, ikasleek erabiltzaile independente aurreratuaren maila (hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuan zehaztua) lortu beharko lukete bi hizkuntzetan (euskara eta gaztelania). Maila horretan, bi hizkuntza ofizialen erabilera egokia eta eraginkorra zehaztu da; hau da, komunikazio-egoera zabal batean (hainbat testuingurutan) egiten direnak eta gero eta formaltasun- eta konplexutasun-maila handiagoa dutenak.

Bestalde, kontuan izan behar da XXI. mendeko gizartea eleanitza eta kulturantza dela, eta, beraz, ikastetxearen helburuak ikasle eleanitzak lortzea izan behar du, dudarik gabe. Mundua gero eta lotuago dago harremanen bitartez; bertan, ezagutza-gizartea, informazio- eta komunikazio-teknologiak, eta pertsonen mugikortasuna dira nagusi, eta, gainera, horiek hizkuntza ofizialen mendean daude. Hala ere, ezinbestekoa da mundu osoan erabiltzen den hizkuntza bat edo zenbait jakitea, pertsonak elkar ezagutzeko, ideiak trukatzeko edota kulturantzasunean elkar ulertzeko. Atzerriko hizkuntzen komunikazioari dagokionez, ikasleek hizkuntza-trebeziekin lotura duten oinarrizko trebetasunak lortu behar dituzte, hainbat komunikazio-egoeratan (egunerokoak nahiz bereziak) aplikatu daitezkeenak. Euskal eskolan, elebitasuna bermatzeaz gainera, pertsona eleanitzak lortzea da helburu; hau da, gutxienez, atzerriko hizkuntza bat ondo dakiten ikasleak lortzea.

Halaber, kontuan izan behar da ikasle alofonoen ehunekoa gero eta handiagoa dela gure ikasgeletan; gainera, pertsona horien hizkuntzak gure eskola-sistematik eta gizartetik at egon dira, orain gutxi arte. Beraz, eskolak aurrez deskribatutako hizkuntza-helburuak proposatu behar dizkie ikasle horiei; baina, aldi berean, beren hizkuntza-ondareari eusten eta hari balioa ematen lagundu behar die, gizarte osorako kultura-aberastasuna baita.

Bigarren Hezkuntzako ikasleak eleanitzak dira, neurri batean; hori dela eta, proposatutako hizkuntza-helburuez gainera, hizkuntza-irakasleek hausnartu eta beren irakaskuntza moduak egokitu beharko dituzte, eta, aldi berean, arreta berezia jarri beharko diote hizkuntzen lanketa integratuari. Hizkuntzak modu integratuan irakastea honako arrazoi hauen ondorio da. Batetik, ikasleak elebidunak edo eleanitzak direnez, une oro hainbat hizkuntza dakizkitez eta horien bidez lortutako ezagutzak dituzte, beren euskarri kognitiboak eta emo-

relaciones del texto literario con su contexto cultural, precisa de aprendizajes específicos para la correcta comprensión y valoración del hecho literario.

La facultad humana del lenguaje se concreta en lenguas determinadas. En la Comunidad Autónoma del País Vasco, que cuenta con dos lenguas oficiales, el euskara y el castellano, la institución escolar ha asumido como objetivo prioritario garantizar al conjunto del alumnado el dominio de ambas lenguas, lo que supone adoptar un papel favorecedor del uso y del aprendizaje del euskara que compense su menor presencia social, e impulse su normalización. En consecuencia, el alumnado al final de la escolarización debería alcanzar en ambas lenguas, euskara y castellano, el nivel de usuario independiente avanzado definido en el Marco Común Europeo de Referencia para las lenguas. Este nivel se concreta en la utilización adecuada y eficaz de las dos lenguas oficiales en un amplio repertorio de situaciones comunicativas, propias de distintos contextos, con un grado creciente de formalidad y complejidad.

Por otro lado, hay que tener en cuenta que la sociedad del S. XXI es plurilingüe y pluricultural lo que coloca a la escuela en la perspectiva ineludible de conseguir ciudadanos plurilingües. Por ello, en un mundo cada vez más interrelacionado, marcado por la sociedad del conocimiento, las tecnologías de la información y la comunicación, y la movilidad de las personas, al dominio de las lenguas oficiales se añade la imperiosa necesidad de conocer alguna o algunas de las denominadas lenguas globales para favorecer el conocimiento mutuo de las personas, el intercambio de ideas y la comprensión intercultural. En la comunicación en lenguas extranjeras el alumnado debe alcanzar destrezas básicas relacionadas con las habilidades lingüísticas aplicadas a un repertorio de situaciones comunicativas cotidianas y limitadas. Al reto de la escuela vasca de asegurar el bilingüismo, debemos añadir el objetivo de conseguir personas plurilingües con un conocimiento suficiente al menos de una lengua extranjera.

Además hay que tener en cuenta que actualmente accede a las aulas un porcentaje creciente de alumnos alófonos cuyas lenguas han estado hasta ahora ausentes en nuestro sistema escolar y en nuestra sociedad. La escuela debe plantear a estos alumnos y alumnas los objetivos lingüísticos anteriormente descritos, pero además debe colaborar en la preservación y valoración de su bagaje lingüístico puesto que constituye una riqueza cultural para el conjunto de la sociedad.

El hecho de que el alumnado de secundaria sea en cierta medida plurilingüe, además de los objetivos lingüísticos planteados, obliga a los docentes de lenguas a reflexionar y ajustar sus modos de enseñanza y, muy especialmente, a prestar atención al tratamiento integrado de las lenguas. La enseñanza de las lenguas de manera integrada es el resultado de varias evidencias: por un lado, de que el alumno bilingüe o plurilingüe dispone en todo momento de diversas lenguas y de los conocimientos adquiridos en ellas, como parte de su

zioak osatzen dituztenak, hain zuzen. Eta bestetik, hizkuntza-ikaskuntzak trukatzeko ahalmena eta, hiztunek parte hartzen duten eremuetan, hainbat hizkuntza aldi berean egon ahal izatea aipatu behar dira. Egiatzapen horien arabera, beraz, alor bakoitzean dagokiona landu beharko da eta bateragarriak diren gaiak guztien artean trukatu beharko dituzte, betiere bakoitzaren erabilera egokia bultzatuta.

Baina hizkuntza-irakasleak ez dira horien irakaskuntzaz eta ikaskuntzaz arduratzen diren bakarrak; izan ere, eskola-erakunde osoak hartzen du parte prozesu horretan. Horregatik, irakasgai guztietako irakasleek duen taldeko zeregin horretan laguntzeko erantzukizuna, eta, ondorioz, bakoitzari dagokion jakintzagaia irakasleek behar bezala ulertzea eta adieraztea bermatu behar dute. Halaber, elkarrizketa bultzatu behar dute, ezagutza handitzeko eta hizkuntzaren oinarriko trebetasun kognitiboak jasotzeko bitartekotzat.

Hizkuntza-ikaskuntza eskolatzeko-prozesuaz haratago dago, baina etapa honetako hizkuntza-gaien helburuek aurrerapen nabarmena adierazten dute Lehen Hezkuntzan ezarritakoekiko; hain zuzen, azken horiek izango dira Bigarren Hezkuntzarako abiapuntu. Aurrerapen horrek, beraz, diskurtso-trebeziaren aniztasuna handitzea eta konplexuago bihurtzea, egoera formaletan hizkuntza erabiltzeak duen garrantzia gehitzea, eta hizkuntza-funtzionamenduari nahiz horren erabilera-arauei buruzko hausnarketaren garrantzia areagotzea adierazten du, bai eta hizkuntza- eta literatura-ezagutzak sistematizatzea ere.

Gizarte-jarduerako eremu esanguratsuetan hitz egiteko, idazteko, entzuteko eta irakurtzeko trebetasunak eta estrategiak osatzen dute curriculumaren ardatza. Trebetasun horiekin lotutako ikaskuntzak hiru eduki multzotan bildu dira: 1. «Ahozko komunikazioa: hitz egitea, entzutea eta elkarrizketan aritzea»; 2. «Komunikazio idatzia: irakurtzea eta idaztea»; eta 3. «Literatura-hezkuntza». Aurrekoekin lotuta, 4. eduki multzoa «Hizkuntzari eta haren erabilerei buruzko hausnarketa» eta 5. eduki multzoa «Hizkuntzaren dimentsio soziala» daude; horiek hizkuntzak sistematizatzen duen funtzionamenduaren behaketan oinarritzen dira, bai eta hizkuntzen erabilera-arauetan, eta hizkuntzen arteko eta horiek hiztunekin dituzten harremanetan ere.

Eduki multzoek modu analitikoan azaltzen dituzte hizkuntza- eta literatura-hezkuntzaren osagaiak, eta, horrez gainera, ikasturte bakoitzean lor daitezkeen mailak adierazten dituzte; dena den, ez dute ikaskuntza-jarduerak ikasgelan izango duten hurrenkera eta antolaketa zehazten. Horregatik, programazioak egitean eta ikasgelara jarduera-ekintzak eramatean, beharrezkoa da eduki multzo guztietako ikaskuntzekin osatzea haiek. Bestalde, gogorarazi behar da prozedura-edukiak irakasgai horien lan-oinarrian daudela eta eduki kontzeptualak, berriz, aurrekoen zerbitzura daudela.

Hizkuntza-trebetasunei buruzko 1. eta 2. eduki multzoetan, ikaskuntza horiek hizkuntzak dituen hainbat

dotación cognitiva y emocional. Por otro, de la transferibilidad de los aprendizajes lingüísticos, y de la presencia simultánea de las lenguas en los distintos entornos en los que los hablantes participan. Estas constataciones determinan la necesidad de trabajar en cada una de ellas lo que le es propio y compartir entre todas lo que tienen en común, siempre al servicio del buen uso de cada una.

Pero no sólo el profesorado de lenguas está comprometido en la enseñanza y aprendizaje de las mismas sino que la institución escolar en su conjunto está implicada en este proceso. Por tanto, los docentes de todas las materias tienen la responsabilidad de cooperar en esta tarea colectiva, asegurando la comprensión cabal y la expresión adecuada de sus alumnos y alumnas en cada campo de conocimiento. También deben favorecer el uso del diálogo en la construcción del conocimiento y el desarrollo de las habilidades cognitivas lingüísticas fundamentales.

Aunque el aprendizaje de las lenguas continúa más allá de la escolarización, los objetivos de las materias lingüísticas en esta etapa marcan una progresión con respecto a los establecidos para la Educación Primaria, de los que habrá que partir. Esta progresión supone ampliar la diversidad de prácticas discursivas y hacerlas más complejas, acrecentar la importancia del uso de la lengua en situaciones formales, dar un papel más relevante a la reflexión sobre el funcionamiento de la lengua y sobre sus normas de uso, así como la sistematización de los conocimientos lingüísticos y literarios.

Las habilidades y estrategias para hablar, escribir, escuchar y leer en ámbitos significativos de la actividad social constituyen el eje del currículo. Los aprendizajes relacionados con estas habilidades se recogen en tres de los bloques de contenidos: 1. «Comunicación oral: hablar, escuchar y conversar». 2. «Comunicación escrita: leer y escribir». 3. «Educación literaria». En relación con ellos, el bloque 4. «Reflexión sobre la lengua y sus usos» y el bloque 5. «Dimensión social de la lengua», agrupan los contenidos que se centran en la observación del funcionamiento de la lengua como sistema, de sus normas de uso y de las relaciones entre las lenguas y de éstas con los hablantes.

Los bloques de contenidos exponen, de modo analítico, los componentes de la educación lingüística y literaria, y señalan los niveles alcanzables en cada curso, pero no establecen el orden y la organización de las actividades de aprendizaje en el aula. Por ello, al elaborar las programaciones y al llevar al aula las secuencias de actividades, es necesario integrar los aprendizajes de los diferentes bloques. Hay que recordar que los contenidos procedimentales están en la base del trabajo en estas materias, y los contenidos conceptuales están al servicio de los anteriores.

Los bloques de contenidos 1 y 2 dedicados a las habilidades lingüísticas sitúan estos aprendizajes en di-

erabilera-eremutan banatu dira: pertsonen arteko harreman-eremuak, erakundeak, komunikabideak, ikasketa-eremuak eta literatura-komunikaziorako eremuak. Esan bezala, hizkuntza-trebetasunak hainbat eremutan zehaztu dira; izan ere, testuak ulertzeko eta eratzeko trebetasun eta estrategia espezifikoak behar dira, komunikazio-harremanen, horiek gauzatzen diren gizarte-eremuaren eta erabiltzen den testu motaren arabera.

Ahozko komunikazioarekin lotutako hizkuntza-trebetasunak erabat baztertua egon dira eskola-sisteman. Hala eta guztiz ere, beharrezkoa da sistema horrek duen garrantzia azpimarratzea, bai ikasleen komunikazio-gaitasuna oso-osorik gauzatzeko, bai ikasgelan harremanetan jarduteko eta esanahia negoziatzeko; horiek, hain zuzen, funtsezkoak dira eremu guztietan ezagutzaren eraikitze-prozesuan eragiten duten hizkuntza-trebetasun kognitiboak garatzeko. Gainera, Euskal Autonomia Erkidegoko egoera soziolinguistikoa dela eta, eskolak euskararen ahozko komunikazioa indartu behar du, gizartearen duen erabilera areagotzeko eta normalizazio-prozesua bultzatzeko.

Era berean, kontuan izan behar da hitz egitea eta entzutea nahiz irakurtzea eta idaztea elkarloturik dauden jarduerak direla; beraz, ikaskuntza-prozesuko jardueretan, hizkuntzaren erabileraren bi alderdietako elementuak landu behar dira: ulermena eta sorkuntza.

Literatura-hezkuntzarekin lotutako edukiak 3. eduki multzoan bildu dira eta aurreko etapan hartutako ildoari jarraitu diote; hauek dira helburuak: irakurketa-ohiturak sendotzea, testuak irakurtzen eta sortzen bizitzeko esperientziak areagotzea –esperientziak sinbolizatze eta sentimenduak adierazteko premia berrieta egokitzuz–, literatura-arauetarako oharrik sistematzatzea eta, azkenik, lanen eta horien sortze- eta barneratze-tesuinguruaren arteko lotura modu sistematikoan ezartzea.

4. eduki multzoan –«Hizkuntzari eta haren erabilei buruzko hausnarketa»–, hizkuntza-sistema osatzen duten elementuei eta horien erabilera mugatzen duten arauetarako hausnarketarekin lotutako edukiak jaso dira. Hizkuntza- eta komunikazio-trebetasunak jasotzeko eta garatzeko, ezinbestekoa da hizkuntzen hainbat alderdiri (hau da, testuingurua, diskurtsua eta gramatika) buruzko hausnarketa egitea; hain zuzen, hausnarketa horrek arrazoitzen du eduki multzo hau sartu izana.

5. eduki multzoan –«Hizkuntzaren dimentsio soziala»–, berriz, hizkuntza-aniztasunarekin nahiz hizkuntzen arteko harremanekin lotutako edukiak bildu dira. Egungo gizartearen ezaugarri den eleaniztasunaren testuinguru konplexu honetan, Euskal Herriko gizarteak orekarik gabeko elebitasuna izan du abiapuntu, eta, hori oinarri hartuta, eleaniztasunaren bidean jarri da. Hori dela eta, egoera soziolinguistikoa bakoitzari buruzko hausnarketa sustatzera behartu da, oro har hizkuntza-aniztasunaren alderdi positiboak bultzatzeko eta, bereziki, euskararen normalizazio-prozesua indartzeko.

versos ámbitos de uso de la lengua: el de las relaciones interpersonales, el de las instituciones, el de los medios de comunicación, el del ámbito académico y el de la comunicación literaria. La concreción de las habilidades lingüísticas en diferentes ámbitos de uso obedece al hecho de que la comprensión y la composición de textos requieren habilidades y estrategias específicas según la clase de intercambio comunicativo, el ámbito social en que éste se realiza y la clase de texto que se utiliza.

Las habilidades lingüísticas relacionadas con la comunicación oral, han sido las grandes olvidadas del sistema escolar. Sin embargo, es necesario remarcar su importancia tanto para el desarrollo total de la competencia comunicativa de alumnos y alumnas, como para favorecer la interacción en el aula y la negociación del significado, fundamentales para el desarrollo de las habilidades cognitivas lingüísticas que inciden en la construcción del conocimiento en todas las áreas. Además, la situación sociolingüística de la Comunidad Autónoma del País Vasco exige que la escuela potencie la comunicación oral en euskara para favorecer su uso social e impulsar el proceso de normalización.

Así mismo, se ha de llamar la atención sobre el hecho de que hablar y escuchar, lo mismo que leer y escribir son actividades interrelacionadas, lo que refuerza la conveniencia de integrar en la secuencia de actividades de aprendizaje elementos de las dos vertientes del uso lingüístico, la comprensión y la producción.

Los contenidos relacionados con la educación literaria se agrupan en el bloque 3 y mantienen la orientación iniciada en la etapa anterior, de modo que se consoliden los hábitos de lectura, se amplíen las experiencias en los campos de la lectura y recreación de textos, adecuándolas a las nuevas necesidades de simbolización de la experiencia y de la expresión de los sentimientos, se sistematizan las observaciones sobre las convenciones literarias y se establezca, de forma sistemática la relación entre las obras y sus contextos de producción y recepción.

El bloque 4 «Reflexión sobre la lengua y sus usos» integra los contenidos relacionados con la reflexión sobre los elementos que conforman el sistema lingüístico y sobre las normas que rigen el uso. La presencia de este bloque se justifica por el hecho de que la adquisición y desarrollo de las habilidades lingüístico-comunicativas exige la reflexión sobre los diferentes aspectos de las lenguas: contextuales, discursivos y gramaticales.

El bloque 5 «Dimensión social de la lengua» recoge los contenidos relacionados con la diversidad lingüística, las relaciones entre las lenguas... En el complejo contexto plurilingüe característico de la sociedad actual, la sociedad vasca avanza desde un bilingüismo desigual hacia un contexto plurilingüe. Esta situación obliga a promover la reflexión sobre las diferentes situaciones sociolingüísticas para desarrollar actitudes positivas hacia la diversidad lingüística en general y hacia el proceso de normalización del euskara en particular.

Hizkuntzen irakaskuntza- eta ikaskuntza-helburua ikasleen komunikazio-gaitasunak garatzea da; horrenbestez, 4. eta 5. eduki multzoetako edukiekin lotutako jarduerak programatzea hizkuntza erabiltzeko trebetasunak hobetzearen mende egongo da, beti.

Eta honen lau ikasturteetako ikaskuntzak mailakatzeko, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan: diskurtso-trebeziak ikasleen hizkuntza- eta kultura-esperientziatik hurbilago edo urrunago egotea, testuak barne-antolamenduari dagokionez konplexutasun gehiago edo gutxiago izatea, eta testuak jasotzeak eta egi-teak dituzten helburuen aniztasuna.

Hizkuntzen curriculum integratu bat proposatu da, ikasleek bi hizkuntza ofizialetan eta, gutxienez, atzerriko hizkuntza batean komunikatzeko gaitasuna lortzea helburu duena, eta, horretarako, honako printzipio hauek bete behar dira:

- Hizkuntzen ikaskuntzaren oinarria inklusioa da; hau da, ikasle guztiei eleaniztasuna oso-osorik garatzeko aukera eman behar zaie, bakoitzaren ama-hizkuntza zein den kontuan hartu gabe.

- Hizkuntzen irakaskuntza erabileran oinarritu behar da; izan ere, hizkuntzak gizartean erabiliz ikasten dira, eta komunikazio-premia pragmatikoez bideratzen eta laguntzen dute kodea behar bezala ikasten.

- Hizkuntzen irakaskuntza komunikazio-ikuspegian oinarritu behar da; hau da, ikasgelak komunikazio gune pribilegiatu bihurtu behar dira, ikasleek hainbat komunikazio-jardueratan parte-hartze eraginkorra izateko aukera ematen dutenak.

- Hizkuntzen irakaskuntza hizkuntzekiko eta hiztunekiko jarrera positiboetan oinarritu behar da, eta kontuan izan behar da hizkuntzek gizarte-harremanetan eta pertsonen emozioen garapenean duten garrantzia.

Printzipio horiek direla eta, komunikazio-proiektu esanguratsuek gidatutako ikaskuntza-prozesua kontuan hartzen duen metodologia landu behar da, hainbat tipo eta generotan sailkatutako testuak oinarritzko komunikazio-unitate bihurtzen dituen; horrez gainera, metodologia horrek ikaskuntza komunikazio-lan bat lortzeko sekuentzia didaktikoetan antolatu beharko du, eta prozedura-edukiei lehentasuna emango die. Hau da, «egiten jakitea» «jakite» hutsari gailenduko zaio.

Metodologia horrek, aldi berean, irakasleek ikasleen komunikazio-gaitasunaren garapen-mailari buruz dituzten itxaropenak dibertsifikatzea dakar, bai eta proposamen egokiak eta hainbat ebaluazio-irizpide ezartzea ere; horrela, ikasle bakoitzak ahalik eta gehien ikastea lortuko da.

El objetivo de la enseñanza-aprendizaje de las lenguas, desarrollar la competencia comunicativa de los alumnos y alumnas, obliga a que la programación de las actividades relacionadas con el contenido de los bloques 4 y 5 esté siempre supeditada a la mejora de las habilidades en el uso de la lengua.

La gradación de los aprendizajes a lo largo de los cuatro cursos de la etapa se basa en los siguientes criterios: mayor o menor proximidad de las prácticas discursivas a la experiencia lingüística y cultural de los alumnos, mayor o menor complejidad de los textos en cuanto a su organización interna, y diversificación de los fines que se asignan a la recepción o composición de los textos.

Plantear un currículo integrado de lenguas cuyo objetivo es el desarrollo de la competencia comunicativa de alumnos y alumnas en las dos lenguas oficiales y al menos en una lengua extranjera, exige asumir los siguientes principios:

- La enseñanza de las lenguas debe basarse en la inclusión, es decir, debe posibilitar que todos los alumnos y alumnas, independientemente de su lengua de origen, desarrollen plenamente su competencia plurilingüe.

- La enseñanza de las lenguas debe basarse en el uso, es decir, las lenguas se aprenden en el uso social y son las necesidades pragmáticas de comunicación las que orientan y favorecen el dominio del código.

- La enseñanza de las lenguas debe basarse en el enfoque comunicativo, es decir, debe convertir las aulas en espacios privilegiados de comunicación que favorezcan la participación eficaz de los alumnos y alumnas en prácticas comunicativas diversas.

- La enseñanza de las lenguas debe basarse en el desarrollo de actitudes positivas hacia las lenguas y los hablantes, teniendo en consideración la importancia de las lenguas en las relaciones sociales y en el desarrollo emocional de los individuos.

Estos principios exigen abordar una metodología que asuma el proceso de aprendizaje guiado por proyectos de comunicación significativos, que haga del texto, clasificado en diferentes tipos y géneros textuales, la unidad comunicativa fundamental; que estructure el aprendizaje en secuencias didácticas orientadas al logro de una tarea comunicativa concreta y que priorice los contenidos procedimentales, el «saber hacer» frente a un mero saber declarativo.

Esta metodología obliga, así mismo, a que el profesorado diversifique sus expectativas respecto al grado de desarrollo de la competencia comunicativa de los alumnos y alumnas, y a que establezca propuestas adecuadas y criterios de evaluación diversos para conseguir que cada uno de ellos logre el máximo aprendizaje posible.

OINARRIZKO GAITASUNAK ESKURATZEKO IRAKASGAIEK EGINDAKO EKARPENA

Hizkuntza-irakasgaiak curriculumaren oinarrizko gaitasun guztiak garatzen laguntzen dute; izan ere, komunikatzeko, mundua irudikatzeko, gizarteratzeko, sentimenduak adierazteko eta sorkuntza sustatzeko tresna pribilegiatuak dira, are eta gehiago hizkuntza-irakaskuntzen ikuspegi instrumentala lantzen denean (esaterako, curriculum-proposamen honetan).

Hizkuntza-curriculumaren helburua hizkuntzaren bidez gizarte-jarduerako hainbat esparrutan gaitasunez jarduteko ahalmena garatzea da, eta, beraz, modu erabakigarrian eragiten du hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna osatzen duten alderdi guztietan. Hain zuzen, hizkuntza-ikaskuntzaren oinarrizko helburua ikastunen komunikazio-gaitasuna garatzea da; hau da, askotariko testuak –etapa bakoitzeko komunikazio-egoera berezietara modu koherentean, kohesionatuan eta zuzenean egokituak– ulertzeko eta sortzeko ahalmena garatzea. Bestalde, hizkuntza zehatz bat erabiltzeko trebetasunak eta estrategiak nahiz hizkuntzari buruzko hausnarketa-prozesuak transferi daitezkeen ikaskuntzak dira, eta horiek azpian dagoen hizkuntza-gaitasunaren garapenean laguntzen dute. Printzipio hori hizkuntzen curriculum osoaren oinarrietako bat da.

Era berean, hizkuntzak leku garrantzitsua du eza-gutza-eremuan; izan ere, ezagutza sortzen, eratzen, pilatzen eta transmititzen duen bitartekoa da. Errealitatearen hainbat alderdi behar bezala menderatzeak lotura zuzena du diziplina bakoitzak horiei buruz jarduteko ezarritako bideak ezagutzearekin. Hitz egiten, entzuten, irakurtzen eta idazten ikastearen helburua ez da soilik komunikazioan interakzioa lortzea, baita ezagutza berriak barneratzea ere. Hizkuntza komunikazio-tresna izateaz gainera, mundua irudikatzeko bitarteko pribilegiatua da, eta pentsamenduaren eta ezagutzaren oinarrian dago. Beraz, hizkuntzaren bidez ezagutzak ikasteak eta eraikitzeak lotura zuzena du ikasten ikasteko oinarrizko gaitasunarekin.

Hizkuntzak, ezagutza finkatzeaz eta mantentzeaz gainera, ezagutza hori modu sistematikoan eta errepikarrian jasotzeko aukera ematen du, bai eta hizkuntzaren laguntzarik gabe ezinezkoak diren harremanak ezartzeko ere; halaber, beste mundu batzuk ezagutzeko eta norberaren baitan hausnartzeko aukera ematen du, eta, horrez gainera, ezagutza autonomoaren giltza eskaintzen du. Bestalde, hizkuntzari esker, norbanakoak bere ezagutza antolatu eta jarduerak planifikatu, norberaren eta besteen esperientziari buruz hausnartu, eta arrazoitzean hartutako bideak azter ditzake. Irakasgai guztiak garrantzi handia dute hizkuntza-trebetasun kognitiboen garapenean, baina hizkuntza-irakasgaiak horiei buruz hausnartzeko gune aproposak dira.

CONTRIBUCIÓN DE LAS MATERIAS AL DESARROLLO DE LAS COMPETENCIAS BÁSICAS

Las materias lingüísticas contribuyen al desarrollo de todas las competencias básicas del currículo ya que son instrumentos privilegiados para la comunicación, la representación del mundo, la inserción en la sociedad, la expresión de los sentimientos y el fomento de la creatividad, más aún cuando se adopta la perspectiva instrumental de la enseñanza de las lenguas, como en esta propuesta curricular.

El currículo de lenguas, al tener como meta el desarrollo de la capacidad para interactuar de forma competente mediante el lenguaje en las diferentes esferas de la actividad social, contribuye de modo decisivo al desarrollo de todos los aspectos que conforman la competencia en comunicación lingüística. De hecho, la finalidad básica del aprendizaje de las lenguas es el desarrollo de la competencia comunicativa de los aprendices, es decir la capacidad de comprender y producir textos variados, adecuados a las situaciones de comunicación propias de cada etapa de manera coherente, cohesionada y correcta. Por otro lado, las habilidades y estrategias para el uso de una lengua concreta así como los procesos de reflexión sobre la lengua, son aprendizajes transferibles y contribuyen al desarrollo de la competencia lingüística subyacente común. Este principio es uno de los fundamentos del currículo integrado de las lenguas.

También en el ámbito de la cognición, la lengua ocupa un lugar central, puesto que es el medio por el que se crea, se construye, se acumula y se transmite el conocimiento. El dominio de los distintos aspectos de la realidad lleva estrechamente aparejado el conocimiento de los modos establecidos por cada disciplina para referirse a ellos. Se aprende a hablar, a escuchar, a leer y a escribir, no sólo para la interacción comunicativa, sino también para adquirir nuevos conocimientos. El lenguaje, además de instrumento de comunicación, es un medio privilegiado de representación del mundo y está en la base del pensamiento y del conocimiento. Por tanto, el acceso al saber y a la construcción de conocimientos mediante el lenguaje se relaciona directamente con la competencia básica de aprender a aprender.

La lengua, además de fijar y conservar el conocimiento, permite acceder a él de manera sistemática y recurrente y establecer relaciones imposibles sin su ayuda; posibilita el descubrimiento de otros mundos, la autorreflexión y ofrece la llave del conocimiento autónomo. Por otro lado, permite al individuo ordenar el conocimiento y planificar la actividad, reflexionar sobre la experiencia propia y ajena y analizar los caminos adoptados al razonar. Todas las materias tienen gran responsabilidad en el desarrollo de las habilidades cognitivo-lingüísticas, pero las materias lingüísticas son el espacio privilegiado para la reflexión sobre las mismas.

Agerikoa da irakasgai horiek matematikarako gaitasunari egiten dioten ekarpena, gai horretan informazioa, datuak eta argudioak argitasunez interpretatu eta adierazi behar baitira. Era berean, hizkuntzek lagundu egiten dute zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako gaitasuna garatzen; izan ere, horretarako, mundua interpretatu behar da, mezuak aztertu, bizitzako hainbat alorretako kausak eta ondorioak modu arrazoi-tuan argumentatu, eta ikasgelan askotariko diskurtsoak (hainbat ezagutza-eremurekin lotura dutenak) erabili.

Hizkuntza erabiltzen ikastea arazoak aztertzen eta konpontzen ikastea ere bada, planak egiten eta erabakitze-prozesuei ekiten nahiz komunikazio-egoera bakoitzean estrategia egokiak erabiltzen ikastea; izan ere, hizkuntzaren funtzioetako bat gure jarduera arautzea eta bideratzea da. Horregatik, hizkuntza-trebetasunak eskuratzeak pertsona bakoitzaren ekimena garatzen laguntzen du, bai eta jarduera gero eta autonomia handiagoz arautzen ere. Bestalde, bereziki ama-hizkuntzak ez direnak ikasteari dagokionez, beharrezkoa da sorkuntza-alderdia garatzea, komunikazio-premia berriei konponbide eraginkorrak bilatu nahian, ikastuna arriskatzera bultzatuko baitu. Hizkuntzak tresna egokiak dira emoziozko eta arrazoizko barne-prozesuak arautzeko, bai eta identitatea eraikitzen laguntzen duen komunikazio-harremanerako ere. Hainbat helburu lortu nahian hizkuntza eraginkortasunez erabiltzen ikasteko prozesuak oreka emozionala, autoestimua, autonomia eta ikaskuntzaren autoerregulazioa garatzea adierazten du; horiek, hain zuzen, norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasunean sartuta daude.

Irakasgai horiek informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna lortzen laguntzen dute; izan ere, horien helburuetako bat informazio garrantzitsua bilatzeko eta hautatzeko ezagutzak eta trebeziak eskura jartzea da, bai eta ahozko testuak eta testu idatziak sortzeko ere. Informazioa hainbat euskarritan bilatzea eta hautatzea bitarteko bat da teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna garatzeko. Halaber, testuak egiteko euskarri elektronikoa erabiltzeak ere laguntzen du, horrela idazketa-prozesuan esku hartzen duten eragiketak (hizkuntza-irakasgaien oinarritzko edukiak) eraginkortasun handiagoz landuko baitira.

Teknologia digitalaren bilakaerak komunikazio-bide berriak eta, beraz, testu-genero berriak ekarri ditu, eta horiek ikasgelan landu behar dira. Era berean, benetako komunikazioa eta interakzioa lortzeko nahiz beste hizkuntza eta kultura batzuetara hurbiltzeko aukerak biderkatu egin dira, eta horrek erraztu egin du irakurketaren eta idazketaren gizarte-erabilera eta lankidetzeta, bai eta ezagutza era bateratuan (guztien artean) eraikitzeko aukera ere. Beste ikuspegi batetik aztertuz, hizkuntza-irakasgaiak mesede egin behar diote bitarteko horien bidez transmititutako informazioarekiko iritzi kritikoa garatzeari.

Es evidente la aportación de estas materias al desarrollo de la competencia matemática que requiere interpretar y expresar con claridad informaciones, datos y argumentaciones. Así mismo, las lenguas contribuyen al desarrollo de la competencia en cultura científica, tecnológica y de la salud en tanto en cuanto ésta exige la interpretación del mundo, el análisis de mensajes, la argumentación racional de las causas y consecuencias en diferentes modos de vida, y la utilización en el aula de discursos variados relacionados con los distintos ámbitos de conocimiento.

Aprender a usar la lengua es también aprender a analizar y resolver problemas, a trazar planes y emprender procesos de decisión, a utilizar estrategias adecuadas en cada situación comunicativa, ya que una de las funciones del lenguaje es regular y orientar nuestra propia actividad. Por ello, la adquisición de habilidades lingüísticas contribuye al desarrollo de la iniciativa personal y a la regulación de la propia actividad con progresiva autonomía. Por otro lado, relacionado específicamente con el aprendizaje de lenguas no maternas, es necesario el desarrollo de la vertiente creativa que impulsa al aprendiz a arriesgarse para buscar soluciones eficaces a sus nuevas necesidades comunicativas. Las lenguas son el vehículo idóneo para la regulación de los procesos emocionales y racionales internos, así como para el intercambio comunicativo que ayuda a la construcción de la propia identidad. El proceso de aprendizaje del uso de la lengua de forma eficaz para diversos fines, supone el desarrollo del equilibrio emocional, la autoestima, la autonomía y la autorregulación del aprendizaje implicados en la competencia para la autonomía e iniciativa personal.

Estas materias contribuyen a la consecución de la competencia en el tratamiento de la información y competencia digital al tener como una de sus metas proporcionar conocimientos y destrezas para la búsqueda y selección de información relevante de acuerdo con diferentes necesidades, así como para su utilización en la producción de textos orales y escritos. La búsqueda y selección de informaciones en diferentes soportes constituye un medio para el desarrollo de la competencia digital. A ello contribuye también el uso de soportes electrónicos en la composición de textos, de modo que puedan abordarse más eficazmente las operaciones que intervienen en el proceso de escritura, contenidos básicos de las materias lingüísticas.

La evolución de la tecnología digital ha propiciado la aparición de nuevas formas de comunicación y, por ende, de nuevos géneros textuales que hay que trasladar al aula. Así mismo, se han multiplicado las posibilidades de comunicación real, de interacción, de acercamiento a otras lenguas y culturas, facilitando el uso social y cooperativo de la lectura y la escritura y la construcción compartida del conocimiento. Desde otra perspectiva, las materias lingüísticas deben favorecer el desarrollo de una actitud crítica hacia la información transmitida por estos medios.

Hizkuntza komunikazio-tresna bat da, eta, beraz, funtsezko elementua da sozializazio-prozesuetan, bai eta gizarterako eta herritartasunerako gaitasunaren garapenean ere. Beste pertsonekin harremanetan jasotzen eta ikasten da hizkuntza bat, eta komunikazio-harremanetan eta helburu askotariko gizarte-jardueretan parte hartzeko erabiltzen da. Eskola-eremuari dagokionez, ikasgelan parte hartzeko, harreman pertsonalak egiteko eta lankidetzaren bitartez ikasteko ezinbestekoa da irakasgai horietan landuko diren hizkuntzaren erabilera espezifikoa ondo jakitea.

Hizkuntza-irakasgaiak ikasleen hizkuntza-katalogoa zabaltzen lagundu behar dute, hainbat gizarte-eremutan arrakastaz jokatu ahal izan dezaten. Hizkuntza-trebetasunak lantzea beharrezkoa da esanahia negoziatzeko, askotariko iritziak hurbiltzeko eta gatazkak konpontzeko...; hau da, gizarte-harremanen oinarri diren jarduerak horiek guztiak gauzatzeko.

Hizkuntza zehatz bat erabiltzeak mesede egiten dio norberaren identitate sortzeari, bai eta hizkuntza- eta kultura-identitate kolektibo batean parte hartzeari ere. Ikasle guztiak autonomia erkidegoko bi hizkuntza ofizialak ondo jakiteari nahiz bi hizkuntzekiko errespetua eta euskara normalizatzeko jarrera adierazteari esker, integrazio hobea eta gizarte-kohesio handiagoa lortuko da.

Hizkuntza-irakasgaiak egoera horiei erantzun egite, eta, horretarako, proposamen berezia egingo dute, egungo euskal gizartearen parte-hartze egokia izateko behar diren hizkuntza guztien garapen integratua eta osagarria bermatuko dituen. Eleaniztasunak gizartearen parte-hartzea bultzatzen du, eta nazioarteko komunikazioari mesede egiten dio; hau da, kanpotik informazioa jasotzeko bide bat da, bai eta pertsonak elkar ezagutzeko, ideiak trukatzeko eta elkar ulertzeko modua ere.

Hizkuntzaren erabilerekin agerian uzten dituzte hizkuntzaren erabilerekin eta biztanleekin nahiz hizkuntza-aniztasunarekin jarrerak; horregatik, hizkuntza-irakasgai horien helburua aniztasun horrekiko jarrera positiboa hartzea da. Gaitasun horri beste modu batean ere laguntzen zaio; izan ere, hizkuntzaren erabilera diskriminazioak errotik mozteko helburua hartuta, hizkuntzak munduko aurreiritziak eta irudi estereotipatuak transmititzen eta zigortzen dituen moduak aztertzen da.

Literatura-lanak irakurtzeak, interpretatzeak eta balioesteak garrantzi handia du giza eta arte-kulturarako gaitasuna garatzen; hau da, literatura-ondarera eta gizakiaren kezka-iturri nagusi diren gaietara –behin eta berriz errepikatzen direnak– hurbiltzeko gaitasuna garatzen. Irakasgai horien ekarpena are garrantzitsuagoa izango da literatura-adierazpenak beste adierazpen artistikoekin (esaterako, musika, pintura edo zinema) lotzen badira. Literatura-komunikazioak lekuari eta denborari dagokionez urrun dauden errealitateekin harremanetan

La lengua es un vehículo de comunicación y como tal, elemento básico en los procesos de socialización y por tanto en el desarrollo de la competencia social y ciudadana. Se adquiere y aprende en interacción con los demás y se utiliza para participar en intercambios comunicativos, en actividades sociales con diferentes finalidades. En el ámbito escolar, la participación en el aula, el desarrollo de las relaciones personales y del aprendizaje cooperativo exigen el dominio de usos lingüísticos específicos que deben ser trabajados en estas materias.

Las materias lingüísticas deben contribuir a la ampliación del repertorio lingüístico de los alumnos y alumnas, de manera que puedan desenvolverse con éxito en distintos entornos sociales. El desarrollo de habilidades lingüísticas es necesario para la negociación de significado, para el acercamiento de posturas y la resolución de conflictos... actividades todas ellas que constituyen la base de las relaciones humanas.

La utilización de una lengua determinada favorece tanto la creación de la identidad propia como la participación en una identidad lingüística y cultural colectiva. El que el conjunto del alumnado logre un buen dominio de las dos lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma y desarrolle actitudes de respeto hacia ambas y favorables a la normalización del euskara contribuirá al logro de una mejor integración y una mayor cohesión social.

Las materias lingüísticas responderán a esta situación con un planteamiento que asegure un desarrollo integrado y complementario de todas las lenguas necesarias para la participación adecuada en el contexto de la sociedad vasca actual. El plurilingüismo favorece la participación en la sociedad, facilita la comunicación internacional, es una vía para recibir información del exterior y un cauce para el conocimiento mutuo de las personas, el intercambio de ideas y la comprensión mutua.

Los usos lingüísticos reflejan las actitudes hacia las lenguas y los hablantes, hacia la diversidad lingüística; y es objetivo de las materias lingüísticas el logro de actitudes positivas ante dicha diversidad. También se contribuye a esta competencia en la medida en que se analizan los modos mediante los que el lenguaje transmite y sanciona prejuicios e imágenes estereotipadas del mundo, con el objeto de contribuir a la erradicación de los usos discriminatorios del lenguaje.

La lectura, interpretación y valoración de las obras literarias contribuyen de forma relevante al desarrollo de la competencia en cultura humanística y artística, entendida como aproximación al patrimonio literario y a los temas recurrentes que son expresión de preocupaciones esenciales del ser humano. La contribución de estas materias será más relevante en tanto se relacionen las manifestaciones literarias con otras manifestaciones artísticas, como la música, la pintura o el cine. La comunicación literaria conduce a los alumnos y alumnas

jartzen ditu ikasleak; era berean, kultura-tradizioan sartzen eta giza baldintzari buruz hausnartzen lagundu, eta hizkuntzaren alderdi estetikora hurbiltzen ditu. XXI. mendeko gizartean, ikus-entzunezko hizkuntzekin lotutako adierazpen-bide berriek garrantzi handia dute; horregatik, komeni da bide horiek lantzea eta horien elementu esplizitu eta implizituak ikuspegi kritikotik ulertzea.

EUSKARA ETA LITERATURA ETA GAZTELANIA ETA LITERATURA

HELBURUAK

Etapan honetan, Euskara eta Literatura eta Gaztelania eta Literatura irakasgaien helburua honako gaitasun hauek lortzea da:

1. Hizkuntza erabiltzeko era askotako eremuetatik jasotako diskurtso idatziak eta ahozkoak ulertzea eta ikuspegi kritikoz interpretatzea, horietan ulertutakoa beste komunikazio-egoera batzuetan aplikatzeko.

2. Ahoz eta idatziz, esan-idatziak egoki, koherentziaz eta zuzen adierazteko eta solasteko gai izatea, errespetuzko eta lankidetzarako jarrera hartuz; hau da, hainbat komunikazio-egoeraren ezaugarriak eta hizkuntzarauek kontuan izan behar dira, komunikazio-premia bakoitzari eraginkortasunez erantzuteko.

3. Soziolinguistikako oinarritzko ezagutzen laguntzaz, gure errealitate elebiduna ezagutzea eta interpretatzea, euskara eraginkortasunez erabiltzeko eta hizkuntza-normalizazioarekiko konpromiso aktiboa garatzeko.

4. Soziolinguistikako oinarritzko ezagutzak kontuan hartuz, eleaniztasunaren eta kultura-aniztasunaren dibertsitatea ezagutzea eta interpretatzea, hizkuntza-aniztasuna lortzeko bide positibo gisa; dibertsitate hori kultura-aberastasun gisa balioetsiko da.

5. Hizkuntzen erabilerari buruz hausnartzea, gizar-teko eta kulturako hainbat testuingurutan behar bezala komunikatzeko aukera ematen duten estrategiak hartzeko; horrela, balio-judizioa eta era guztietako aurreiritziak sortzen dituzten hizkuntza-estereotipoak saihestuko dira.

6. Testuak ulertzeko eta sortzeko prozedurak kontuan hartuz, erlazioan dauden hizkuntzen sistemei buruz hausnartzea, horietako bakoitza behar bezala, koherentziaz eta zuzen erabiltzeko eta transferentzia negatiboak saihesteko.

7. Informazioa bilatzean, hautatzean eta prozesatzean, gizar-teko komunikazio-bideak eta informazio-teknologiak gero eta autonomia handiagoz eta espiritu kritikoz erabiltzea, eskola-jardueran hizkuntza mintzatua eta idatzia eraginkortasunez erabiltzeko.

al contacto con realidades alejadas en el espacio o en el tiempo, favorece su inserción en la tradición cultural, les ayuda a reflexionar sobre la condición humana y les acerca a la dimensión estética de la lengua. En la sociedad del siglo XXI están muy presentes las nuevas formas de expresión ligadas a los lenguajes audiovisuales, las cuales conviene trabajar haciendo especial hincapié en la comprensión crítica de sus elementos explícitos e implícitos.

LENGUA VASCA Y LITERATURA Y LENGUA CASTELLANA Y LITERATURA

OBJETIVOS

La enseñanza de las materias de Lengua Vasca y Literatura y de Lengua Castellana y Literatura tendrá como finalidad el logro de las siguientes competencias en la etapa:

1. Comprender discursos orales y escritos procedentes de distintos ámbitos de uso de la lengua e interpretarlos con actitud crítica para aplicar la comprensión de los mismos a nuevas situaciones comunicativas.

2. Expresarse e interactuar oralmente y por escrito de forma adecuada, coherente y correcta, adoptando una actitud respetuosa y de cooperación, teniendo en cuenta las características de las diferentes situaciones de comunicación y los aspectos normativos de la lengua, para responder eficazmente a diferentes necesidades comunicativas.

3. Conocer e interpretar nuestra realidad bilingüe con la ayuda de conocimientos sociolingüísticos básicos para desarrollar un compromiso activo hacia el uso del euskara y la normalización lingüística.

4. Conocer e interpretar la diversidad plurilingüe y pluricultural con la ayuda de conocimientos sociolingüísticos básicos para desarrollar una actitud positiva hacia la diversidad lingüística valorada como una riqueza cultural.

5. Reflexionar sobre el uso de las lenguas para adoptar estrategias eficaces que permitan comunicarse adecuadamente en diferentes contextos sociales y culturales, evitando los estereotipos lingüísticos que suponen juicios de valor y prejuicios de todo tipo

6. Reflexionar sobre los sistemas de las distintas lenguas en relación con los procedimientos de comprensión y producción textuales para favorecer el uso adecuado, coherente y correcto de cada una de ellas y evitar las transferencias negativas.

